

*Mariano Uriarte Intxausti*  
*Amorebieta-Etxano, Bizkaia (1917)*

Aurkibidea

## Biografia

Autzaganeko Bidebieta baserrian jaio zen 1917. urtean. Gurasoak Ibarrurikoak (gaur egun Muxika) izan zituen. "Zornotzako aditz-eren karinkara" liburuaren oinarri izan ziren partaideetako bat da.

## Zintak

### AMO-076

- **Proiektua:** Zornotzako aditz-eren karinkara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zelaieta Gerediaga, Luis Mari
- **Data:** 1988-08-03
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** CD
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar
- **Emalea:** Amorebieta-Etxanoko Udala

# Pasarteak

## 1. Autzaganen garai bateko giroa galdu da

- **Erref:** AMO-076/005
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:01:51. **Bukatu:** 00:04:09

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

### Laburpena:

Zornotzako Autzaganeko auzoari buruzko kontuak kontatzen ditu. Garai batean auzoan giroa zegoen, baina orain oso gutxi. San Bartolome jaien ostean ospatzen dira jaiak. Gaur egun gauza gutxi egoten da.

## 2. Autzaganeko euskara; herriko ospakizunak

- **Erref:** AMO-076/007
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:04:44. **Bukatu:** 00:07:08

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

### Laburpena:

Autzaganeko euskara eta Zornotzakoa berdinak dira, baina Boroako euskararekin aldea dago. Gernika aldekoekin ere. Auzoan jaiak nola ospatzen ziren kontatzen du. Orain gutxi arte hiru taberna egon dira auzoan.

## 3. Autzaganeko euskararen erabilera

- **Erref:** AMO-076/008
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:07:08. **Bukatu:** 00:08:10

### Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

### Laburpena:

Autzaganen euskaraz egiten da gaur egun ere. Garai batean, gaztelaniaz ez zekienak ere bazen.

## 4. Eskola garaia

- **Erref:** AMO-076/009
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:11:37

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

### Laburpena:

Eskolarik ez zen Autzaganen Mariano umea zenean. Ez zen eskolara asko joaten eta oso oinarritzko ikasketa jaso zuen. 11 urtera arte ibili zen bera eskolan. Lanean hasi zen gero, baina gau-eskoletara joaten zen. Maisua, Don

Victor Bilbao, oso gogorra zen eta makilarekin jotzen zituen. Piper egiten zutenean, txori bila joaten ziren.

## 5. Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparruan preso

- **Erref:** AMO-076/011
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:11:43. **Bukatu:** 00:13:10

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

### Laburpena:

Gerra garaian frontean borrokan ibili zen Burdinezko Hesian. Preso bidali zuten Miranda de Ebroko kontzentrazio-esparrura eta handik langileen batailoi batetara.

## 6. Garai bateko jaiak Zornotzan

- **Erref:** AMO-076/014
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:13:41. **Bukatu:** 00:15:01

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

### Laburpena:

Gaupasak egiten ziren garai batean, baina berak ez zituen egiten. Danborrada egoten zen garai batean ere.

## 7. Tabernara joateko zaletasuna

- **Erref:** AMO-076/015
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:15:01. **Bukatu:** 00:16:20

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

### Laburpena:

Garai batean beti oinez ibiltzen ziren. Gutxi batzuek zeukaten bizikleta eta autoa inork ere ez. Tabernara joateko zaletasuna beti egon da. Limoi-ura asko edaten zen. Txikiteoan hasi zen 16 urterekin. Pezeta batekin trago batzuk hartzen zituen.

## 8. Gaur egun diru gehiago dauka jendeak

- **Erref:** AMO-076/016
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:17:57

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

### Laburpena:

Garai batean eta gaur egun, jendea berdina ateratzen da jai-giroan, parrandan eta juergan. Baina, gaur egun dirua gehiago dauka jendeak.

## 9. Zornotzako jubilatuen elkartea

- **Erref:** AMO-076/018
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:18:02. **Bukatu:** 00:19:35

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

### Laburpena:

Zornotzako jubilatuen elkartera maiz joaten da eta denekin ondo konpontzen da. Kafea eta kopa hartzen du eta buelta bat eman. Ez da oso telebista edo irratizalea.

## 10. 1941tik, egunero erosten du egunkaria

- **Erref:** AMO-076/019
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:20:44

### Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

### Laburpena:

Egunkaria egunero irakurtzen du, 1941tik. Herri-kirolak gustatzen zaizkio.

## 11. Idi-probetan, irabazi eta galdu

- **Erref:** AMO-076/020
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:20:44. **Bukatu:** 00:22:51

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

### Laburpena:

Idi-probak gustatzen zaizkio eta apostuetan ibili da. Irabazten zuenean, lagunei meriendara gonbidatzen zien. Zornotzan apostulari onak egon dira. Apostulariak.

## 12. Zaletasuna gutxi dago herri-kiroletan

- **Erref:** AMO-076/022
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:22:57. **Bukatu:** 00:24:41

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

### Laburpena:

Herri-kirolak asko gustatzen zaizkio, baina geroz eta zaletasun gutxiagoa dagoea uste du . Bola-jokoa.

## 13. Zornotzako futbol taldea ez du jarraitzen

- **Erref:** AMO-076/023
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:24:41. **Bukatu:** 00:26:43

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Futbola

**Laburpena:**

Futbolak dirua mugitzen du. Mariano Zornotzako futbol taldeko bazkidea da baina ez da joaten ikustera.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-08-21*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - [ahotsak@ahotsak.com](mailto:ahotsak@ahotsak.com)